



LEZOko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016

Emaitzen txostena

Andoainen, 2017ko otsaila



1.	Sarrera	2
2.	Metodologia	4
2.1	Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia	4
2.2	“Lezo, 2016” neurketaren fitxa teknikoa	9
1.	Erdialdea:	10
2.	Lazon/Pildain	11
3.	Udaburu:	12
4.	Zubitxo/ E. Salaberria:	13
2.3	Laginaren osaera	15
3.	Erabilera Lezon, 2016. urtean: emaitza orokorra	18
3.1	Lezoko hamar elkarrizketetatik hiru eta lau artean euskaraz	18
3.2	Testu-inguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera-maila	19
3.3	Euskararen erabilera Lezon, hizkuntza-gaitasuna eta erabilera isotropikoa aintzat hartuta	22
4.	Erabileraren bilakaera Lezon (2000-2016)	24
4.1	Euskararen erabilera-datua hiru puntu igo da hamasei urtean: puntu bat igo azken bi urteko epean	24
4.3	Ezagutzaren bilakaera	26
5.	Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta inguruko beste herriekin alderaketa	28
5.1	Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta inguruko herrien kale-erabileraren datuekiko alderaketa	28
5.2	Hizkuntza-gaitasuna, kaleko erabilera eta espero daitekeen erabilera EAEko, Gipuzkoako, Donostialdeko eta Lezoko datuen alderaketa	29
5.3	Inguruko hainbat herririkiko alderaketa	30
6.	Zonaldekako emaitzak	32
6.1	Zonaldeen arabera datuak	32
6.2	Zonaldeen arabera emaitzen bilakaera	33
7.	Hiztunen ezaugarrien arabera datuak	35
7.1	Sexuaren arabera emaitzak	35
7.2	Sexuaren arabera hizkuntzen erabileraren bilakaera	36
7.3	Adinaren arabera emaitzak	37
7.4	Adinaren arabera erabileraren bilakaera(2010-2016)	39
8.	Euskararen erabilera eta haurren presentzia	41
8.1	Haurren presentziaren arabera euskararen erabilera	41
8.2	Erabilera eta haurren presentzia: bilakaera	43
9.	Datu nagusien laburpena	45



1. Sarrera

Euskararen egoera nolakoa den deskribatzeko garaian, askotan jotzen da iritzia ematera. Baina subjektibotasuna saihesteko, gero eta garrantzitsuagoa da egoeraren berri emango duten datuak eskuartean izatea, balorazioetan objektibotasuna lortzeko. Hala, datu horien bila ekin nahian, herriko euskararen presentzia nolakoa den adierazteko, funtsezkoa da kalean zenbat euskara erabiltzen den jakitea. Izan ere, soziolinguistika-arloko eskarmentuak erakutsi du erabilera dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuena eta fidagarriena.

Hizkuntza erabiltzea gizakion jardun arrunt ohikoa da. Nonahi, noiznahi, baliatzen dugu hizkuntza. Giza izaeraren bereizgarria da. Baina, testuinguru eleaniztunetan, euskararen kasuan bezala, hizkuntza bat edo bestea erabiltzea ez da jarduera arautua edota patroijakinei obeditzen diena. Horrenbestez, hizkuntzen erabilera hori neurtzea ariketa konplexua da, eta metodologia findua eskatzen du. Helburu horri erantzuteko asmoz sortu eta garatu dugu kaleko hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologia.

Kale-erabileraren neurketaren metodologia horri esker, abantaila handiak lortzen dira herriko errealitatera hurbiltzeko, eta, beraz, funtsezkoa bihurtzen da herri-mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Batetik, lehen aipatu moduan, objektibotasuna lortzen da herriko errealitate soziolinguistikoaz aritzeko garaian. Gainera, herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko beste hainbat datu badaude ere (eroldako ezagutza-datuak, ikastetxe eta euskaltegi-tako matrikulazio-datuak...), datu horiek guztiak herriko kaleetan entzun daitekeen eguneroko jardunean nabarmentzen dira. Bestalde, ohikoa izaten da baliabide urriak edukitzea euskararen aldeko sustapen-planak egiterakoan, eta horrek premiarik handiena duten eremuak zein diren jakitea eskatzen du lehenetsiak ezartzeko.

Ondorioz, kaleko neurketen emaitzak beharrezkoak dira lehenetsiak horiek definitzeko edota datu xeheagoak eskuratze aldera. Izan ere, hainbat erabilera-datu eskura daitezke neurketaren bidez, adin-talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen, besteak beste. Era berean, neurketa horiek maiztasunez eginez gero, bilakaera ezagutu ahal izango da, eta, modu horretan, herrian izaten diren hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitzeko aukera izango da.



2. Metodologia

2.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia


Lezon egindako kale-neurketaren metodologia Euskal Herriko Hizkuntza-erabileraren Neurketan garaturikoan oinarritua dago. 2.2. atalean azalduko diren fitxa teknikoko moldaketak soilik egin behar izan dira metodologia herriko berezitasunetara egokitzeko.

Hizkuntza-erabileraren Euskal Herriko Kale-neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik sei alditan errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, 2011n eta 2016an. Azken honetako datu-bilketa egin den arren, emaitzak ez dira oraindik kaleratu, eta, beraz, ezingo ditugu aurrekoekin alderatu, oraingoz. Nolanahi ere, azken neurketetan bezala, bost urtean behin egindako neurketak, besteak beste, erroldako datuekin batera aztertzeke aukera emango dute. Dagoeneko, beraz, hogeita bost urteko esperientzia metatuta, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dagoela esan daiteke, gaur egun, euskararen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu direla datu horiek.

Kale-neurketan erabiltzen den teknika behaketa zuzena da; hau da, ezertxo ere galdetu gabe, neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Hala, bere helburua praktikan hizkuntza bakoitza erabiltzearen ekintzak zenbateko maiztasun erreala duen kontrolatzea da. Izan ere, teknika honen abantaila azpimarragarrienetakoa neurtzaileek hitzunaren joera naturala jasotzen dutela litzateke datuen subjektibotasuna saihestuz eta emaitza fidagarriagoak lortuz.

Landa-lana

Landa-lana behar bezala egiteko, diseinu teknikoaren fasean beharrezkoa da aurrez bi datu zehaztea: ibilbidea eta neurraldiak, hain zuzen ere. Alde batetik, beraz, herriko kalerik jendetsuenak biltzea irizpide nagusizat hartuz (plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar.) neurtu beharrezko kale horiek finkaturiko ibilbidea(k) definitzen d(ir)a. Bestalde, neurketarako egun eta orduak zehaztu behar dira, helburu nagusia herriko biztanle guztiak



(potenzialki behintzat) neurtzea izanik. Nolabait ere, hautatutako egun eta orduetan herritar guztien hizkuntza-jarduera estatistikoki neurtzeko aukera bildu nahi da neurraldien eta ibilbideen diseinuarekin.

Elkarrizketa-hizkuntza

Oinarrizko behaketa-unitatea taldeko elkarrizketa-hizkuntza da, ez dugu norbanakoaren hizkuntza neurtzen. Beraz, ezinbestean, bi lagun edo gehiagoren arteko elkarrizketak dira zenbatzen direnak. Dena den, bakarrizketa gisa jasotzen ditugu elkarrizketa-mota batzuk: adibidez, mugikorreko elkarrizketen kasua, non hiztun bakarraren informazioa jasoz biltzen den elkarrizketa-datua. Bestalde, normalean soilik bat edo bi lagun entzuteko denbora izaten da, eta beraz, taldeko elkarrizketa-hizkuntza definitzerakoan, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen da kontuan talde osoarentzat.

Azkenik, gerta daiteke pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea bere jardunean. Kasu horietan, hizkuntza nagusia jasotzen da, gehien erabiltzen duena alegia.

Fitxak

Neurketetan erabilera-datuak biltzeko fitxa bakarra erabiltzen da. Material horren bidez, hiztunen ezaugarriak jasotzen dira, aldagai horiek hizkuntza-erabileran suposatzen duten baldintzapenaren neurri bat ateratzea ahalbidetuz. Hala, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, hiru aldagai hauek euskararen erabilera duten eragina neurtzeko aukera eskaintzen digu fitxak: sexua, haurren presentzia eta neurtu diren taldeen adin-osaketa.

Neurraldi guztietan erabiltzen da fitxa bera; ikus ondoren fitxa horren irudiak:

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
T: 943 592 556
kaleneurketak@soziolinguistika.eus

HERRIA: _____
IBILBIDEA: _____
EGUNA: _____ ORDUA: _____
NEURTZAILEAK: _____

OHARRAK: _____

	EUSKARA	GAZTEKERA	FRANTSESA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-...urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
01	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
02	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
03	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
04	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
05	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
06	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
07	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
08	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
09	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
16	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
17	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
18	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
19	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
20	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Emakumezkoa Gizonezkoa

	EUSKARA	GAZTEKERA	FRANTSESA	BESTERIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-...urte)	Haurrak hitz egiten	
									BAI	EZ
21	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
22	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
23	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
24	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
25	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
26	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
27	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
28	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
29	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
30	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
31	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
32	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
33	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
34	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
35	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
36	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
37	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
38	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
39	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
40	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
41	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
42	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>					<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Emakumezkoa Gizonezkoa



“Lezoarren” erabilera baino gehiago, Lezoko kaleetakoa

Azaltzen ari garen metodologia honek badu muga bat: ezin da ziurtatu kalean hizketan ari diren hiztun guztiak herrikoak direnik. Horregatik, ez da egokia neurtutakoa herriko biztanleen hizkuntza-erabilera dela esatea, izan ere, neurtutakoa herriko kaleetan jaso den erabilera da. Dena den, kasu batzuetan herrikoen erabilera hurbiltzeko helburuarekin, nabarmen kanpotarrak (turistak) direnen elkarrizketak modu berezitan jaso ditugu.

Erabilera-datuen neurketek bere zailtasuna ere badutela gogoan izan behar da, hizkuntza-erabilera aldakorra den heinean. Beraz, kontuan izan behar da datu adierazgarriak jasotzen badira ere, euskararen kale-erabilera hori neurri txiki batean aldagarria dela. Horren arrazoa ulergarria da: kalean noiz norekin topo egingo dugun aurreikusi ezin daitekeenez, euren jarduera neurtzen diren hiztunak ez dira beti berdinak eta horrek herriko euskararen kale-erabileraren datua aldarazi dezake. Muga hori gainditzeko da bereziki interesgarria, besteak beste, maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Hala eta guztiz ere, metodologia honek emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzea bermatzen du.

Adierazgarritasuna

Datuen adierazgarritasuna bermatzeko garrantzitsua da laginaren tamainari begiratzea, behatutako elkarrizketa-kopuruari alegia. Are gehiago, aurrez aipaturiko hiru aldagaiek (sexua, adina eta hurren presentzia) euskararen kale-erabileran duten eragina aztertzeko, gutxieneko elkarrizketa-kopuru bat bete behar da adierazgarritasun hori lortzeko. Egia da, sarritan, gazteen adin-taldean, 15-24 urte bitartekoen artean alegia, kalean behar baino hiztun gutxiago behatzen ditugula; izan ere, adin-talde honen joera erdigunetik haragoko eremuetan biltzea da eta zailtasunak ditugu gure laginean hiztun profil hori txertatzen. Arrazoi horregatik, hainbatetan populazioaren parte horretako datuak tentuz hartu behar izaten dira.

Zentzu horretan, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan (adin-taldeak sexuaren arabera bereizterakoan, adibidez), lagina txikiagoa bihurtzen da, eta datuek adierazgarritasuna galtzen dute, beharrezkoa den gutxieneko elkarrizketa-kopurua ez bada jaso. Hau da, aldagai guztiak aztertzeko lagin handia behar izaten da, izan ere, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu lagin txikiagoa gelditzen baita. Horrela, beste adibide bati erreferentzia eginez, gerta daiteke behatutako hiztunen adinaren arabera banaketa egiteko behar besteko lagina biltzea, baina adin-talde bakoitzean sexuaren arabera azterketa egiteko ez.

Oharrak

Atal honekin amaituz, hona hemen datu-bilketarako neurtzaileek eskura izan dituzten ohar-orriak:

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Zer neurtu behar da?

Kalean, eta soilik **kalean dabilen jendearen arteko hizkuntza erabilera**. Leku itxiak beraz (tabernak, dendak, kiroldegia, etxeak, lantegiak, garraioak, edonolako lokalak,...), neurketa honetatik kanpo geratuko dira.

Neurtzaileak

Neurketa **bikoteka** egingo da. Pertsona bakar batek ere egin lezake, baina ego-kiagoa da neurtzaileak binaka aritzea. Izan ere,

- Errazagoa da. Batek jendeari entzun eta besteari zer apuntatu behar duen esan diezaiola.
- Biren artean askoz hobeto disimulatuzen da, eta oso inportantea da saiatzea inor ez dadin konturatu neurketa egiten ari garela. Gainerakoan, jendearen jokabide naturalak alda daitezke; isilduz, hizkuntzaz aldatuz, haserretuz,...

Neurketa, ez inkestak

Kalean goazela jendeari ez zaio galdetu behar normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duen edo une horretan zein hizkuntzatan ari den mintzatzen. **Ez galdetu, entzun** egin behar dugu eta entzuten dugun hizkuntza jaso, jendeari ezer esan gabe. Gure helburua kaleko hizkuntza-errealitatea bere horretan jasotzea da, ahalik eta modurik objektiboenean. Kalean doazenez ez dute jakin behar neurketa egiten ari garenik.

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

Datuak nola jaso

Datuak orri berezietan jasoko dira (ikus beheko fitxa-orria). **Elkarrizketa bakoitza errenkada batean adieraziko da**, eta lau datu hartuko dira kontuan:

- Hizkuntza:** "Euskara"; "gaztelera"; "frantsesa" eta "besteirik" (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu "besteirik" zutabea adieraziko dugu. Eta gauza bera egingo dugu, Ipar Euskal Herrian euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzekin.
- Adin taldea:** "Haurrak (2-14 urte bitartekoak)"; "gazteak (15-24 urte)"; "helduak (25-64 urte)" eta "adinekoak (65 urtetik gorakoak)". Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrekoa da.
- Generoa:** Mintzakideen sexua jasoko dugu, "emakumezkoa" ala "gizonezkoa" den.
- Azkenik, **haurrek hitz egiten dutela** jasoko dugu, hau da, elkarrizketa entzuten dugun unean 2-14 urte bitarteko haurrak hitzun aktiboak diren "bai" ala "ez".

Neurketa nola egiten den azaltzeko **HIRU ADIBIDE** jarriko ditugu:

- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egiten (**01 elkarrizketa**):
 - Euskaraz laukian "X" markatu.
 - Haurren zutabea, emakumezkoen laukian "1" adierazi eta gizonezkoen laukian beste "1" adierazi.
 - "Haurrak hitz egiten" zutabea "bai" laukian "X" markatu.
- Senar-emazteak gaztelera hitz egiten ari dira haien artean, 5 urteko alaba eta 16 urteko semea beraiekin doaz baina hitz egin gabe (**02 elkarrizketa**):
 - Gaztelera laukian "X" markatu.
 - Haurren zutabea, emakumezkoen laukian "1" adierazi; gazteen zutabea, gizonezkoen laukian "1"; eta helduen zutabea, emakumezkoen laukian "1" eta gizonezkoen laukian beste "1" markatu.
 - Haurrak hitz egiten zutabea "ez" laukian "X" seinaltatu.
- Bost gazte, bi neska eta hiru mutil, gaztelera ari dira (**03 elkarrizketa**):
 - Gaztelera laukian "X" markatu.
 - Gazteen zutabea, emakumezkoen laukian "2" eta gizonezkoen laukian "3" adierazi.
 - Haurrak hitz egiten zutabea "ez" laukian "X" markatu.

HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

HERRIA: _____
 IBILBIDEA: _____
 EGUNA: Urriak 08 ORDUA: 18:00-20:00
 NEURTZAILEAK: _____

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA
 T: 943 592 556
 kaleneurketak@soziolinguitika.eus

	EUSKARA	GAZTELERA	FRANTSESA	BESTEIRIK	HAURRAK (2-14 urte)	GAZTEAK (15-24 urte)	HELDUAK (24-64 urte)	ADINEKOAK (65-... urte)	Haurrak hitz egiten		
									BAI	EZ	
01	X				/	/				X	
02		X			/		/	/			X
03	X					2	3				X
04	X							2			X
05	X							2			X
06			X				/	/			X
07		X			2		/				X
08	X					/	/				X
09	X							/	/		X
10	X						2				X
11	X					4					X
12	X				/		/				X
13	X							3			X
14	X				2			/			X
15	X	X					2	/			X
16	X				/	/					X
17	X					2	/				X
18	X				/		/	/			X
19	X					3	/	/			X
20	X	X				/	/				X

| Emakumezkoa | Gizonezkoa



2.2 “Lezo, 2016” neurketaren fitxa tekniko

Prozedurak


Aurreko puntuan azaldutako metodologiako xehetasun guztiak baliagarriak dira *Lezoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren* berri emateko ere. Ez ditugu, hortaz, errepikatuko.

Ibilbideak


Arestian aurreratu moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan eta definitzerakoan, herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da irizpide nagusia: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa-kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketa egiteko egunak eta orduak ere zehaztu ditugu, eta horiek hautatzean, herriko biztanle guztiak (potentzialki, behintzat) neurtu ahal izatea izan da gure helburua; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiek edukitzea neurtuak izateko aukera.

Irizpide horiekin, 2016ko *Lezoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* egiteko ibilbideak lau zonatan antolatu ditugu. Jarraian bildu ditugu zehatz-mehatz ibilbide bakoitzean neurtutako kaleak:

1. **Erdialdea:** Gurutze Santuaren plaza, Kale Nagusia, Jaizkibel hiribidea, Zubitzo kalea, Piku kalea (joan-etorria), Gurutze Santuaren plaza, eta Donibane kalea (iturriraino).



2. **Lazon/Pildain:** Donibane kalea (iturrian hasita), Guillermo Lazon kalea, Goiko Plaza, Pildain kalea, Agustin Lizarazu kalea (behetik sartuta: Hispanoa, Olasape, etab.), eta Gaintza kalea.



3. **Udaburu:** Jaizkibel hiribidea (Zubitzoko semaforoa), Karlos Saldise plazari buelta, Larrun kalea, Auñamendi kalea, Gorbea kalea, Urdaburu kalea, eta Aralar kalea.


>Ibilbidea:
LEZO (Urdaburu)

Kale Neurketa
SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA



4. **Zubitxo/ E. Salaberria:** Zubitxo kalea -ibai-ondotik hasita-, saskia dagoen plazatik buelta, Zubitxo kalea -kontserbatorioa, TUT kafetegia, arkupeetatik-, Pisbe, E.Otxoa, Lopene, eta E.Salaberria.

>Ibilbidea:
LEZO (Zubitxo/E. Salaberria)



Landa-lana

Landa-lanari dagokionez, 2016ko irailaren 21etik urriaren 23ra bitartean egin dugu, eta Lezoko kasuan neurraldi hauen arabera osatu da egutegia:

Erdigunea	Irailak 21, asteazkena	18:00 – 20:00
	Irailak 24, larunbata	11:00-13:00 / 18:00-20:00
	Irailak 25, igandea	12:00 – 14:00
Lazon/Pildain	Irailak 28, asteazkena	18:00-20:00
	Urriak 1, larunbata	11:00-13:00 / 18:00-20:00
	Urriak 2, igandea	12:00 – 14:00
Udaburu	Urriak 5, asteazkena	18:00-20:00
	Urriak 15, larunbata	11:00-13:00 / 18:00-20:00
	Urriak 15, igandea	12:00 – 14:00
Zubitxo/E. Salaberria	Urriak 19, asteazkena	18:00-20:00
	Urriak 22, larunbata	11:00-13:00 / 18:00-20:00
	Urriak 23, igandea	12:00 – 14:00
GUZTIRA: 32 ORDU		

Unibertsoa, lagina eta emaitzen adierazgarritasuna

Unibertsoa: Lezoko kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.

Lagina: behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun **1.236 elkarrizketek** eta horietan solaskide izan diren **3.358 herritarrek** osatu dute lagina¹.

Akats-tartearen kalkulua (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): **Akats-tartea** bertakoen datuekin kalkulatu dugu. **±%2,79koa** elkarrizketen lagin osoarentzat, %95,0ko konfiantza mailan.

¹ EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuaren arabera 2011n Lezon 5.871 herritar bizi ziren.



2.3 Laginaren osaera


Behatutako 1.236 elkarrizketa eta horietan solaskide izan diren 3.358 herritarren ezaugarriak jakitea beharrezkoa da unibertsoaren ordezkagarritasuna aztertzeko garaian. Hau da, gure azterketarako laginaren osaerari erreparatzea garrantzitsua da lezoarren ezaugarriak modu berean bildu ote diren jakiteko eta zer nolako akats-tartea dugun balioztatzeko. Beraz, laginaren osaerari erreparatuz, azterketan egin dezakegun akats-tartearen balorazio bat egingo dugu.

Dena den, laginaren osaera eta lezoarren adin-tarteen proportzionaltasunaren alderaketa neurri batean da kontuan hartzekoa, izan ere, ez baita berez gure helburua herritarren erabileraren argazkia ateratzea, baizik eta Lezoko kaleetan entzuten den erabilera neurtzea. Kaleetan entzuten diren elkarrizketak ez dira soilik herritarren artekoak izaten, eta elkarrizketetan parte hartzen duten pertsonak ez dute zertan herritarrek dituzten ezaugarri berberak izan beharrik.

Adin-tarte osaera

Lagina osatu duten hiztunen adinean jarriko dugu arreta, lehenengo grafikoan ikus daitekeenez. Lagineko hiztun gehienak 25-64 urte bitartekoak (%48,5) dira. Ondoren, 2-14 urtekoak (%27,5) eta 64 urtetik gorakoak (%17,6). Azkenik, 15-24 urte bitartekoak dira (%6,4) laginean pisu gutxien duten hiztunak. Beraz, jasotako elkarrizketa gehienak haur, helduen eta adinekoen artekoak izan direla ondoriozta daiteke, hiru adin-taldeko hiztunak batuz ia lagin osoaren %95 osatzen baitute.

1. GRAFIKOA eta TAULA: LAGINAREN ADIN-TARTE OSAERA, UNIBERTSOAREKIN ALDERATUZ LEZO, 2011-2016



	LAGINA (2016)		UNIBERTSOA (2011)	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
2-14 urte	925	27,5	729	12,4
15-24 urte	214	6,4	578	9,8
25-64 urte	1.628	48,5	3.707	63,1
>64 urte	591	17,6	857	14,6
GUZTIAK	3.358	100,0	5.871	100,0


Iturria: Lagina: Soziolinguistika Klusterra, Lezoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016. Unibertsoa: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2011.

Laginaren eta unibertsoren arteko alderaketa eginez, desoreka handiena haurren proportzioan dago, unibertsoan %12,4ko proportzioa hartzen baitute eta gure laginean %27,5koa. Helduen arteko aldea ere garrantzikoa da: laginean %48,5 eta unibertsoan %63,1 proportzioekin. Gazteen kasuan aldiz, aldea hain handia ez izan arren, kontuan hartzeko modukoa da, baina kontrako noranzkoan. Alegia, laginean neurtutako gazte-kopurua txiagoa da (%6,4) unibertsoan hartzen dutena baino (%9,8). Gure azterketan, beraz, Lezon haurren presentzia handiagoa da kalean, unibertsoren proportzionaltasunak adierazten duena baino, eta gazteena txikiagoa.

Sexu osaera

Komenigarria da sexuaren arabera lagina nola osatzen den kontuan izatea, horrek ere emaitzen interpretazioan eragina izan bailezake.

2. GRAFIKOA eta TAULA: LAGINAREN ETA UNIBERTSOAREN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. LEZO, 2016 (%)



LAGINA (2016)		UNIBERTSOA (2011)	
Kop.	(%)	Kop.	(%)
1.679	50	2.946	50,2
1.679	50	2.925	49,8
3.358	100	5.871	100

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Lezoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016; eta unibertsorako: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2011


Bigarren grafikoan ikus daitekeenez, Lezoko biztanleriaren %50,2 emakumezkoak eta %49,8 gizonezkoak dira EUSTAT-en 2011ko eroldaren arabera, praktikoki erdia eta erdia. Laginean, errealitatean bezalaxe, erdia eta erdia dira, zehazki %50 bakoitza. Beraz, kasu honetan oso pareko gertatu dira unibertsorearen eta laginaren datuak.

3. Erabilera Lezon, 2016. urtean: emaitza orokorra

3.1 Lezoko hamar elkarrizketetatik hiru eta lau artean euskaraz

Lezoko kaleetan entzundako hamar elkarrizketetatik hiru eta lau artean euskaraz izan dira, %36,5 zehatz esanda. Gainerakoak gaztelaniaz (%63) zein beste hizkuntza batzuetan izan dira (%0,5), 2016ko irailean eta urrian egindako neurketaren arabera.

3. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. LEZO, 2016 (%)



	Kop.	(%)
Euskaraz	1.225	36,5
Gaztelaniaz	2.115	63,0
Beste hizkuntzetan	18	0,5
GUZTIRA	3.358	100,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Lezoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.

Horixe da 2016ko irailean eta urrian Lezoko herrian egindako neurketaren emaitza nagusia. Neurketa nola egin den (erabilitako metodoa, alegia) zehatz-mehatz azaldu da txosten honetako 2. atalean. Gogora daiteke, besterik gabe, **1.236 elkarrizketa** behatu direla Lezon, eta **3.358 lagun** izan direla guztira elkarrizketa horietako solaskide. Ikerketa sozialean erabili ohi diren parametroetan, kopuru handia da hori **5.871 hiztun** dituen herri batentzat². Termino

² Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen zentsua, 2011.

estatistikoetan, esan dezakegu euskarazko elkarrizketen %36,5eko datu horri **±%2,79ko akats-tartea** dagokiola, %95,0ko konfiantza mailan, unibertso osoaz hitz egiterakoan³. Oinarri sendoa dugu, beraz, herritarren hizkuntza-portaerak deskribatzeko.

3.2 Testu-inguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera-maila

Ehuneko 36,5ekoa da, hortaz, euskararen erabilera⁴ Lezon. Hori asko den edo gutxi den hausnartzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu, ezer baino lehen, beste bi datu aintzat hartzea: herrian euskaraz hitz egiteko gai direnen kopurua batetik (euskaldunen kopurua, alegia) eta euskaldun-kopuru horretatik “espero daitekeen erabilera” edo *erabilera isotropikoa*, bestetik. Jarraian aurkeztuko ditugu datuok.

Lezoarren hizkuntza-gaitasuna

EUSTATEk 2011. urtean egindako *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren* arabera, biztanleriaren %56,8 euskalduna zen Lezon. Beste zati batek (%24), euskalduna izan gabe, bazuen euskararen nolabaiteko ezagutza bat, ulermen mailan, behintzat, eta gainerako %19,2a erdalduna zen⁵, euskara ulertu ez eta hitz egiten ere batere ez zekitenak. Horiek dira Lezoko herritarren hizkuntza-gaitasunari buruz argitaratu diren daturik berrienak.


³ Hizkuntzen erabileren kale-neurketetarako Soziolinguistika Klusterrak berariaz landutako eredu matematikoaren emaitza (ikus <http://www.soziolinguistika.eus/lagina/eskaera/kale-erabilera>).

⁴ Berez, zentzu hertsian, “kale-erabileraz” hitz egin beharko genuke. Azalpena arintzearen, ordea, “erabilera” terminoa erabiliko dugu. Izan kontuan ohar hau kontuan txosten osorako.

⁵ Kategoría horiek euskararen jakite mailari buruz egiten diren lau galderei (ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu?, eta idazten duzu?) erantzundakoaren arabera lortu dira. Aukeran ematen diren erantzunak (ezer ez, nekez, eta ondo) konbinatuz, zazpi hiztun-kategoria sortzen dira, eta zazpi horiek bilduz, guk aurkeztutako hirurak.

		ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Ondo	Ondo
	ERDI-ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Nekez	Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo	Ondo	Ez	Ez
IA EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ondo/ Nekez	Ondo/ Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ez	Ez
	PASIBOAK	Ondo/ Nekez	Ez	Ez	Ez
ERDALDUNAK		Ez	Ez	Ez	Ez

4. GRAFIKOA eta TAULA. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA. ERRENTERIA, 2016 (%)



	Kop.	(%)
Euskaldunak	3.333	56.8
la euskaldunak	1.411	24,0
Erdaldunak	729	19,2
GUZTIAK	5.871	100

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2011

Espero daitekeen euskararen erabilera

Udalerrri bateko hizkuntzen erabileraren neurketa abiatzerakoan helburua izan ohi da ezagutzea, zein neurritan erabilera-maila hori euskal hiztun proportzioarekin bat datorren. Hau da, zein proportziotan euskaldunek euskaraz hitz egiten duten testuinguru elebidun edo eleaniztun batean. Hizkuntza-erabileraren konplexutasuna ulertzeko ekarpen berezia egin zuen J.L. Alvarez Enparantza *Txillardegik* 2001 urtean, bere *eredu matematikoa* garatu zuenean⁶. Eredu horren bitartez, gune elebidun jakin batean *espero daitekeen euskararen erabilera* kontzeptua definitu eta kalkulatzeko modua aurkeztu zuen, honako ezaugarriekin:

- Harreman-testuinguru hipotetiko batean, non eta gizakiek euren arteko hizketaldiak ausaz egingo lituzketen (egoera isotropikoa),

⁶ Gaiari sakontzeko ikus Alvarez Enparantza, J. L., Txillardegi, 2001, Hacia una Socio-Lingüística Matemática. Donostia: Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen; Isasi, X eta Iriarte, A, 1998, "Euskararen kale-erabilera. Txillardegiren eredu matematikoa", *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 28, 51-80 orr.

- gune jakin bateko euskaldunen proportzioa kontuan hartuta, eta
- euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz egingo dutenaren hipotesia emanda (euskararekiko leialtasun erabatekoa),
- *espero daitekeen euskararen erabilera (erabilera isotropikoa)* kalkula daiteke,
- honako formularen bidez:

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

P_B = euskararen erabilera-maila
 m_B = euskararekiko leialtasuna
 e_x = elebidunen proportzioa
 w_2 = bikoteen pisua
 w_3 = hirukoteen pisua
 w_4 = laukoteen pisua

Esan bezala, *espero daitekeen euskararen erabilera (erabilera isotropikoa)* kontzeptua harreman-testuinguru hipotetiko bati dagokio, eta ez da, beraz, praktika errealari loturiko kalkuluaren emaitza. Nolanahi ere, zalantzarik gabe, *erabilera isotropikoaren* balioak lagun dezake hiztun euskaldun eta ez-euskaldunez osatutako testuinguruetan, euskal hiztunen hizkuntza-hautua neurri batean ulertzen.

Gure kasuan: Lezon neurtutako erabilera (%36,5 euskaraz) handia edo txikia den balioztatzeko, bertako herritarren artean euskaldunek osatzen duten tartea kontuan hartuko da (esan bezala, %56,8 ziren euskaldunak 2011n). Aplika dezagun formula hori Errenteriako errealitatera.

$$P_B = 1,0 \cdot (0,60 \cdot 0,568^2 + 0,22 \cdot 0,568^3 + 0,18 \cdot 0,568^4) = 0,256 = \%25,6$$


Kalkuluak eginda, hortaz, Lezon %25,6koa da baldintza horietan *erabilera isotropikoa*. Beraz, Lezoko biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, eta euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz jardunez gero, %25,6koa da *espero daitekeen euskararen erabilera*.

3.3 Euskararen erabilera Lezon, hizkuntza-gaitasuna eta erabilera isotropikoa aintzat hartuta

Jar ditzagun taula batean eta irudikatu grafiko batean, orain arte aipatu ditugun hiru datu nagusi horiek:

Bosgarren grafikoan eta taulan ikus daitekeen bezala, euskararen kaleko erabilera ezagutzarena baino txikiagoa da Lezon. Zehazki, elebidunen kopurua (%56,8) euskararen kaleko erabilera (%36,5) baino hogeitun puntu altuagoa da. Eta, aldi beran ikus daiteke *erabilera isotropikotik* (%25,6) (*espero daitekeen erabileratik*) hamar puntu baino gorago dagoela kaleko erabilera erreala.


5. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, HORREN ARABERA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA ERREALA. LEZO, 2016 (%)



	(%)
Hizkuntza-gaitasuna 2011 (euskaldunen %a)	56,8
Erabilera erreala 2016	36,5
Espero daitekeen erabilera 2011	25,6

Oinarria (kasu-kopurua): Hitzunak 5.871, behatutako elkarrizketak 1.236, behatutako hitzun-kopurua 3.358

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Lezoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016; EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011.



Diferentzia horiek azaltzeko, kontuan izan behar da ia kasu guztietan euskaldunak gaztelaniadunak ere badirela (euskaldun elebakarrak haurren artean soilik topa daitezke), eta hizkuntza bat zein bestea erabil dezaketela. Pentsa daiteke, euskaraz hitz egiteko gai ez den mintzakidearekin gaztelaniaz hitz egingo dutela; mintzakide elebidunarekin, berriz, euskaraz edo gaztelaniaz. Beraz, ezinezkoa da euskararen erabilera ezagutzaren mailakoa izatea. Hori horrela izan dadin (erabilera eta ezagutza bat etor daitezen), bi baldintza bete beharko lirateke: euskaldunek inolako harremanik ez izatea euskaldun ez direnekin, eta euskaldunen artean euskara besterik ez erabiltzea.

Aintzat hartzeko beste erreferentzia baldintza isotropikoetan euskaldunek leial jokatzuz gero “espero daitekeen erabilera” dugu. Kopuru hori %25,6koa da Lezon. Horren argitara, Lezon euskararen erabilera erreala (%36,5koa) baldintza isotropikoetan espero daitekeen erabileraren gaineratik dago.

Dena den, ezin dugu ahaztu honako hau erreferentzia teorikoa dela eta jakin badakigula harreman-sareak ez direla ausazkoak izaten. Hots, familia-kide, lagun, adinkide eta gainerako talde sozialen kide izateak ugaritzen dituztela harremanak, eta, oro har, gutxiago izaten direla kidetasun horiek gabeko hizketaldiak. Era berean, badakigu euskaldunen arteko elkarriketak ez direla beti euskaraz izaten, hau da, euskararekiko leialtasuna ez dela %100ekoa izaten.


Horiek guztiak horrela izanik, erabilera erreala “espero zitekeena” baino handiagoa izateak, adieraz dezake, neurri batean, herriko euskaldunen arteko harreman-sarea ausaz izan zitekeela aurreikusitako daitekeena baino sendoagoa dela, eta, hortaz, euskararen erabilera estatistikoki espero dena baino handiagoa. Horrez gain, euskaldunen leialtasunaren nolabaiteko seinale ere bada datu hori.

4. Erabileraren bilakaera Lezon (2000-2016)

4.1 Euskararen erabilera-datua hiru puntu igo da hamasei urtean: puntu bat igo azken bi urteko epean

Lezoko kaleetako hizkuntza-erabileraren bilakaera berri emateko baditugu eskura, 2000. Urteaz geroztik egindako zortzi neurraldietako datuak. Beraz, 16 urteko bilakaeraren berri emateko moduan gaude. Ondorengo grafikoan eta taulan ikus daitekeenez, epe horretan hiru puntu egin du gora kaleko euskararen erabilerak (2000ko %33tik 2016ko %36,5era). Nolanahi ere, epealdi horretan, bi urtez behin eginiko neurketetan gorabehera esanguratsuak jaso izan dira. Kontuan hartzekoa da 2012. urtean izandako erabilera-datu altuenaren ondotik (%41,8), esate baterako bi urteko epean kaleko euskararen erabilerak 6 puntuko jaitsiera (2014ko %35,8) izan duela. 2016an eginiko neurketak ia puntu bateko igoera neurtu izanak adieraz dezake euskararen kaleko erabileraren beheranzko joera hori eten dela, eta -etorkizuneko neurketek baieztatu beharko dutenaren arren- goranzko bidea hartzeaz dagoela.

6 GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. LEZO, 2008-2016. EUSKARAZ (%)




	2000	2002	2004	2008	2010	2012	2014	2016
%	33	38	36,3	37,8	37,9	41,8	35,8	36,5

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Lezoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2000, 2002, 2004, 2008, 2010, 2012, 2014 eta 2016.

Nolanahi ere, komenigarria da neurketek metodologikoki duten akats-tartea kontuan hartutako bilakaera ikustea. Tarte hori grafiko batean irudikatuz gero, bilakaeran gertatu den gorabehera oso txikia dela ikus daiteke. Adibidez, zazpigarren grafikoan eta taulan jarri ditugu 2008ko neurralditik aurrerako emaitza nagusiak akats-tarteak biltzen dituen lerro zabalean. Horrela, ikus daiteke lerro zabal hori balio egonkorretan mantentzen dela, eta beraz, komenigarria dela gertaturiko gorabeherak malgutasunez hartzea.

7 GRAFIKOA eta TAULA: KONTUZ!!! EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA ETA AKATS-TARTEA. LEZO, 2012-2016. EUSKARAZ (%)




	Akats-tartearekin (+)	Erabilera	Akats-tartearekin (-)
2008 (+-3,2)	41,0	37,8	34,6
2010 (+-3,05)	41,0	37,9	34,9
2012 (+-2,6)	44,4	41,8	39,2
2014 (+-2,6)	38,4	35,8	33,2
2016 (+- 2,8)	39,3	36,5	33,7

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Lezoko hizkuntza-erabilerearen kale-neurketak, 2011 eta 2016.

4.3 Ezagutzaren bilakaera

Euskararen erabilera ulertzeko, interesgarria da aztertzea herritarren hizkuntza-gaitasunak izan duen bilakaera. Ondorengo grafiko eta taulatan ikus daitezke herritarren hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak, 1986. urtetik 2011. urtera bitartekoak.

8. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA. LEZO, 1986-2011 (%)



	1986 (kop.)	1991 (kop.)	1996 (kop.)	2001 (kop.)	2006 (kop.)	2011 (kop.)
Euskaldunak	2.548	2.599	2.998	3.177	3.183	3.333
la euskaldunak	982	1.134	949	1.190	1.229	1.411
Erdaldunak	1.980	1.446	1.687	1.311	1.342	1.127
GUZTIAK	5.510	5.179	5.634	5.678	5.754	5.871
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Euskaldunak	46,2	50,2	53,2	56,0	55,3	56,8
la euskaldunak	17,8	21,9	16,8	21,0	21,4	24,0
Erdaldunak	36,0	27,9	30,0	23,0	23,3	19,2
GUZTIAK	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak eta Estatistikak, 1986, 1991, 1996, 2001, 2006, 2011.




Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera aztertzeko, EUSTAT-ek bost urtez behin egiten duen zentsuan hizkuntzari buruzko informazioa erabiltzen dugu. Lezoarren hizkuntza-gaitasunak, euskaldunei dagokionez, hamar puntu egin du egin gora 25 urteotan (1986ko %46,2tik 2011ko %56,8ra), nahiz eta azken bost urteotako igoera puntu eta erdikoa izan den (2006tik 2011. urtera bitartean %55,3tik %56,8ra igo da). Ia euskaldunak direnen portzentaiak ere gora egin du, kasu honetan sei puntu (bi eta erdi azken bost urteotan) eta erdaldunei dagokienez, behera egin du, hamazapi puntu 1986tik 2011ra bitartean; 2011an %19,2 zen euskara ulertu ere egiten ez zuen biztanleen taldea, ordura arteko portzentaiarik baxuena. Euskaldunen dentsitatearen bilakaera horrek (10 puntuko euskaldunen igoera, ia euskaldunen 6 puntuko igoera eta erdaldunen 16 puntuko jaitsiera) neurri batean behintzat, azaltzen du kalean 25 urteotan euskararen erabileraren balioak hiru puntu igo izana.

5. Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta inguruko beste herriekin alderaketa

5.1 Euskal Herriko, EAEko, Gipuzkoako eta inguruko herrien kale-erabileraren datuekiko alderaketa

Ondorengo grafikoan, Euskal Herrian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Gipuzkoan eta Donostialdean jasotako datuak alderatuko ditugu. Euskal Herriko, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gipuzkoako daturik eguneratuenak 2011koak dira, eta Lezoko 2016koekin konparatuko ditugu.

9. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKAL HERRIKO, EAEko, GIPUZKOAKO, DONOSTIALDEKO ETA LEZOKO KALEKO HIZKUNTZAREN ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. LEZO, 2016. EUSKARAZ (%)




Euskararen kale-erabilera 2011/2016	
Euskal Herria 2011	13,3
EAE 2011	16,1
Gipuzkoa 2011	32,7
Donostialdea 2011	20,6
Lezo 2016	36,5

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Lezoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016, eta Euskal Herriko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa, 2011.

Bederatzigarren grafikoak eta taulak erakusten dutenez, Lezoko euskararen kale-erabilera (%36,5) Euskal Herriko balio orokorretik oso gaineratik dago (zehazki 23 puntu goitik), eta baita EAEkotik (%16,1), Donostialdekoetik (%20,6) eta, baita, Gipuzkoako batez besteko erabilerearen zertxobait gaineratik (%32,7).


5.2 Hizkuntza-gaitasuna, kaleko erabilera eta espero daitekeen erabilera EAEko, Gipuzkoako, Donostialdeko eta Lezoko datuen alderaketa

10. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, KALEKO ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEENA. EAEKO, GIPUZKOAKO, DONOSTIALDEKO ETA LEZOKO DATUEN ARTEKO ALDERAKETA (2011 -2016 (%))



	Hizkuntza-gaitasuna 2011	Erabilera erreala 2011/2016	Espero daitekeen erabilera 2011
EAE	37,2	16,1	9,8
Gipuzkoa	53,2	32,7	21,8
Donostialdea	43,4	20,6	13,7
Lezo	56,8	36,5	25,6

Iturria: EAE, Gipuzkoako, Donostialdeko eta Lezoko gaitasunetarako EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011. EAEko, Gipuzkoako eta Donostialdeko kale-erabilerarako Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen-erabilera neurketak, 2011; Lezoko kale-erabileraren daturako, Kale-neurketa 2016. Espero daitekeen erabilerarako Soziolinguistika Klusterreko kalkuluak.



Hamargarren grafiko eta tauletako datuek egoera ulertzen lagun dezakete. Hizkuntza gaitasunari dagokionez, Lezok du hautatutako eremu geografikoetatik ehunekorik altuena (%56,8), eta beraz, espero izatekoa da erabileran ere daturik altuena izatea. Hala aurreikusten dute baita erabilera isotropikoaren balioek ere (Gipuzkoakoa %21,8, eta Lezokoa %25,6). Eta hala gertatzen da errelealitateko neurketan ere: Gipuzkoako batez besteko erabilera %32,7koa den bitartean, %36,5koa da Lezokoa.


Erabilera erreala EAEn, Gipuzkoan, Donostialdean zein Lezon *Erabilera isotropikoa* edo *espero daitekeen erabileraren* datutik gora dago, eta datu hori positiboa da erabileraren normalizazioan. Izan ere, arestian esan bezala, hizkuntzaren erabilera harreman sare-mota desberdinetan oinarritu ohi da. Beraz, zoriz espero daitekeena baino altuagoa izateak adierazten du euskaldunen arteko sareetan euskararekiko leialtasuna badagoela.

Donostialdeko eta EAeko gaitasun-datuak urruntzen dira modu esanguratsuan Lezokoetatik, egoeraren aniztasunaren adierazgarri. Izan ere, EAEn gertatzen den antzera, euskara-dentsitate nabarmen txikiagoa duten eremu geografikoak biltzen dira Lezorekin batera Donostialdean, (bertan daude Gipuzkoako euskararen dentsitate txikiak dituzten udalerrri handienak). Ezaugarri horrek, egiten du Donostialdeko euskaldunen dentsitatea lurraldearena baino ia hamar puntu txikiagoa izatea.

5.3 Inguruko hainbat herrirekiko alderaketa

Datu horiek apur bat gehiago testuinguratzeko, aurrez neurketa bereziak egin diren inguruko beste bi udalerritakoekin alderatu ditugu Lezokoak, hain zuzen ere, Pasaiaikoekin eta Hernanikoekin. Kontuan izan behar da, nolana ere, neurketa horiek ez diera urte berean egin: Pasaikoa 2015ean izan zen, eta Hernaniko 2011 (2016an beste neurketa egin baldin bada ere, datuak ez dira oraindik argitaratu, eta beraz, 2011koak erabiliko ditugu alderaketa egiteko).

11.GRAFIKOA eta TAULA: EZAGUTZA, ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA; INGURUKO HAINBAT UDALERRIREKIN ALDERAKETA, 2016. (%)



	Hizkuntza-gaitasuna 2011	Erabilera erreala 2011/2015/2016	Espero daitekeen erabilera 2011
Pasaia	38,2	20,2	10,3
Hernani	57,3	39,1	25,8
Lezo	56,8	38,5	25,2

Iturriak: Gaitasunerako: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2011. Kale-erabilerarako: 2015eko Pasaiko, 2016ko Hernaniko eta Lezoko hizkuntzen-erabileraren neurketa. Espero daitekeen erabilerarako: Soziolinguistika Klusterraren kalkuluak.


Hizkuntza-gaitasunari eta behaturiko erabilerari dagokionean, Lezok antzekotasun handia du Hernanirekin: ezagutza-maila %56,8 eta %57,3 dira hurrenez hurren, eta balio isotropikoa %25,8 eta %25,2. Erabilera erreala, ere, oso parekoa da Lezokoa Hernanikoarekin alderatuz (Hernani %38,1, Lezo %38,5). Pasaiarekin alderatuta, ordea, ezagutza eta balio isotropikoa esanguratsuki altuagoa izanik, erabilera erreala ere 18 puntu altuagoa da (Pasaian %20,2 eta Lezon %38,5).

6. Zonaldekako emaitzak

6.1 Zonaldeen arabeko datuak

Herritarrek leku publikoetan zer hizkuntza erabiltzen duten neurtzea xede izanik, herriko bitzita soziala gertatzen den zonaldeetan egin dugu behaketa.

12. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. LEZO, 2016 (EUSKARAZ, %)



	Erdigunea	Lazon/pildain	Udaburu	Zubitxo
Euskaraz	45,2	27,6	28,2	34,0
Gaztelaniaz	54,2	71,6	71,4	65,8
Beste hizkuntzetan	0,6	0,8	0,5	0,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	1.435	612	653	658


Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2016ko Lezoko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa.

Ibilbideak zehazteko, udalerriko herritarren harreman-gune nagusiak non kokatzen diren identifikatu ohi da, eta behin zonalde horiek definitu ostean, zonalde bakoitzaren barruan zer ibilbideri jarraitu behar zaion erabaki, udaleko teknikariek elkarlanean. Lezoko kasuan, lau eremutan banatu dugu udalerria, fitxa teknikoaren atalean aipatu den moduan.

Hamabigarren grafikoan eta taulan ikus daitekeen modura, udalerriko erdigunean neurtu da euskarazko elkarrizketa-ehuneko handiena. Zehazki, 45,2koa izan da euskaraz entzundako elkarrizketen ehunekoa. Tarte nabarmenarekin jarraitzen dio Zubitxo ibilbidean neurturiko euskararen erabilerak (%34,0) eta gutxiago entzuten da euskaraz hitz egiten Udaburuko ibilbidean (%28,2) eta Lazon/Pildain ibilbidean (%27,6).


6.2 Zonaldeen arabera emaitzen bilakaera

13. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. BILAKAERA. LEZO, 2000-2016 (EUSKARAZ, %)



	2000	2008	2016
Erdigunea	33,0	45,9	45,2
Lazon/Pildain	24,1	33,8	27,6
Udaburu	47,3	37,2	28,2
Zubitxo/E. Salabarria	38,9	32,9	34,0

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, 2016ko Lezoko hizkuntzen kale-erabileraren neurketa.




Lezoko kaleetan, ibilbide desberdinetan euskararen erabilerak izan duen bilakaera aztertzeko azken 16 urteotako datuak hartu ditugu kontuan. Gogora ekarri behar da, behaketa egiterakoan, zenbat eta lagina txikiagoa izan orduan eta zailagoa dela zehatz-mehatz esatea behatutakoa orokortu daitekeen. Horregatik, ibilbide bakoitzean jasotako laginak kontuan hartuta, bilakaeraren berri emateko joerak markatzen dituztela esatea zehatzagoa da. Nolanahi ere, joera horiek garbi xamarrek direla esan daiteke: alde batetik Lezoko erdigunean 16 urtean 12 puntuko igoera izan du euskararen kaleko erabilerak, nahiz eta badirudien azken urteotan egonkortu dela erabilera, eta ez dela lehenagoko goranzko joerari eutsi. Aldiz, nabarmenki behera egin du Udaburuko ibilbidean, jaitziera etengabe. Azkenik, aipagarria da, Lazon eta Zubitxo/E.Salaberriko ibilbideetan gorabehera batzuekin balio orokorraren aldaketa hiru puntukoa dela soilik (Lazonen kasuan gorantz, eta Zubitxo/E.Salaberriarenean beherantz).

7. Hiztunen ezaugarrien araberako datuak

7.1 Sexuaren araberako emaitzak

Gizonezkoen eta emakumezkoen hizkuntza-portaeren artean aldea handia ez den arren, esan daiteke emakumezkoen erabilera (%38,2) gizonezkoena baino zertxobait handiagoa dela (%34,8). Azken urteetako portaera orokorra Euskal Herrian emakumezkoen erabilera apur bat handiagoa izatearena da, eta beheko irudian eta taulan ikus daitekeenez, Lezon ere, horrela egiaztatu da.

14. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. LEZO, 2016 (EUSKARAZ, %)




	GUZTIAK	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaraz	38,2	34,8	38,2
Gaztelaniaz	61,3	64,6	61,3
Beste hizkuntzetan	0,5	0,6	0,5
GUZTIRA	100	100	100
Oinarria (behatutako solaskideak)	1.679	1.679	1.679

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Lezoko hizkuntza-erabilerearen kale-neurketa, 2016.

7.2 Sexuaren araberako hizkuntzen erabileraren bilakaera

2000. urtetik hasi eta 2016. urte bitartean egindako neurketen emaitzak alderatuko dira ondoren, sexuen araberako euskararen bilakaeraren berri emanez. Ikus ondorengo grafikoa eta taula:

15. GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAREN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. LEZO, 2011-2016. (EUSKARAZ, %)



	Emakumezkoak	Gizonezkoak
2000	35,2	23,4
2008	42,1	33,6
2016	38,2	34,8

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Lezon hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2010, 2012, 2014 eta 2016.


Hamabosgarren grafikoan eta taulan ikus daitekeenez, 2000tik aurrera egindako neurketen arabera, bai emakumezkoen kasuan eta baita gizonezkoen ere, euskararen erabileran igoera bat ikusi da: hiru puntukoa lehen kasuan (emakumeen erabilera %35,2 2000n eta %38,2koa 2016an) eta gizonezkoen 11 puntukoa (%23,4koa izan zen 2000 urteko erabilera eta 34,8koa 2016an).

Bestalde, aipagarria da, neurraldi guztietan emakumeen euskararen erabilera gizonezkoenaren gainetik dagoela. Tarte handia ez den arren denboran zehar, balioen arteko tarte hori mantentzeak adierazten du badagoela desberdintasun txiki bat Lezoko emakumeen eta gizonezkoen euskararen erabileraren artean.

7.3 Adinaren arabera emaitzak

Alde esanguratsuak antzematen dira hizkuntza-portaeran adinaren arabera aztertuz gero. Herri askotan haurrak (2-14 urte) dira euskara gehien erabiltzen dutenak eta Lezon ere hala gertatu da: haurren erabilera da altuena udalerrian; %43,5tan darabilte euskara haurrek. Ondoren, baina oso hurbiletik, gazteen erabilera da handiena (%41,6) eta nabarmentzeko tartearekin jarraitzen dute helduek (%35,9) eta adinekoek (%25,4); horiek dira nabarmen euskararik gutxiena erabiltzen duten hiritarrak. Beraz, esan daiteke, Lezon, zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta euskararen erabilera handiagoa izan ohi dela.

16.GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. LEZO 2016 (EUSKARAZ, %)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Lezoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.

Belaunaldi berriak etorkizunaren aitzindari eta aurrerapen diren heinean, haurren eta gazteen erabilera aurretik izatea da desiragarriena hizkuntzaren berreskurapena lortze aldera. Gaur egun, Euskal Herri mailan ere, belaunaldi gazteak dira gehien hitz egiten dutenak euskaraz, orain hogeita hamar urte ez bezala.

Nolanahi ere, datuen interpretazioan laguntzeko, ondoren alderatuko dira adin-tartearen arabeko hizkuntza-gaitasunak. 17. taula eta grafikootan ikus daitezkeenez, adinari erreparatuta badaude aldeak herritarren hizkuntza-gaitasunean.

17.GRAFIKOA eta TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. LEZO, 2011.




	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)
Euskaldunak	644	515	1728	446	644
Ia euskaldunak	69	36	1189	117	69
Erdaldunak	16	27	790	294	16
GUZTIAK	729	578	3707	857	729
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Euskaldunak	88,3	89,1	46,6	52,0	88,3
Ia euskaldunak	9,5	6,2	32,1	13,7	9,5
Erdaldunak	2,2	4,7	21,3	34,3	2,2
GUZTIAK	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2011.

EUSTATen datuen arabera, Lezon haurren artean hamarretik daki euskaraz hitz egiten (%88,3). Kontuan hartzen badugu "ia euskaldun" diren haurrak (%9,5), esan daiteke Lezoko haurren artean euskararen ezagutza unibertsala izatetik hurbil dagoela. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da haur horien euskararen kaleko erabilera %43,5ekoa dela, alegia erdira ere heltzen ez dela, nahiz eta hazten ari den. Gazteen artean ere, euskararen ezagutza oso handia izanik (%89,1), kaleko erabilera %41,6koa da. Lezoko helduen eta adinekoen kasuan ezagutza nabarmen txikiagoa da (%46,6 helduak %52 adinekoak), eta horien artean erabilera %35,9 eta %25,4koa da, hurrenez hurren.

7.4 Adinaren araberako erabileraren bilakaera(2010-2016)

18.GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA. LEZO, 2000-2016 (EUSKARAZ, %)




	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
2000	45,3	32,9	27,0	25,6
2002-2004	52,2	20,1	30,8	34,9
2008-2010	51,7	16,4	32,1	37,3
2012-2014	56,2	31,4	45,8	24,3
2016	43,5	41,6	35,9	25,4

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Lezoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2000, 2002, 2004, 2008, 2010, 2012, 2014, eta 2016.

Adinaren araberako bilakaera aztertzeko, 2000etik aurrerako datuak bildu ditugu orain arte bezala 18. Grafiko eta taulatan. Nolanahi ere, datuen irakurketa errazteko helburuarekin, honako eragiketa matematikoa egin da: lehen eta azken urteko datuak bere horretan mantendu dira, eta tartekoetan bi urteko datuen arteko media kalkulatu da, modu horretan, joerak hobeto islatzen direlako. Grafikoan ikusten den eran, 16 urteko epean gertaturiko aldaketa nagusiak gazteen eta helduen artean gertatu dira, kasu bietan 9 puntuko igoera ikusten baita: gazteen kasuan %32,9tik %41,6ra eta helduen artean %27tik %35,9ra. Aldiz, haurren eta adinekoen artean ia balio berean geratu dira euskararen kaleko erabilerak hamasei urteko epea igaro ondoren (haurrak 2000an %45,3, 2016an %43,5; adinekoak %25,6 2000n, %25,4 2016an).

Nolanahi ere, grafikoak ondo erakusten duenez, tarte horretan adin-tarte guztietan gertatu dira gora-beherak, eta horiek hurbilagotik ikusteko 2010etik 2016ra doan tartean gertaturiko bilakaera erakusten duten 19. grafikoa eta taula osatu ditugu.

19.GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA. LEZO, 2010-2016 (EUSKARAZ, %)



	2010	2012	2014	2016
Haurrak	52,8	57,0	55,4	43,5
Gazteak	29,3	46,6	16,1	41,6
Helduak	30,5	59,6	32,0	35,9
Adinekoak	39,7	21,2	27,3	25,4

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Lezoko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak, 2010, 2012, 2014 eta 2016.


Sei urteko bilakaerari erreparatuz gero, badira nabarmentzeko hainbat datu: alde batetik, haurren artean epe honetan euskararen erabilerak izan duen zortzi puntuko beherakada (2010eko %52,8tik 2016ko %43,5era), hain zuzen ere, aurreko hamar urtean izandako gorako joerari itzulia emanez, eta, alderantziz, gazteen artean izan duen 14 puntuko igoera (2010eko %29,3tik 2016ko %41,6ra). Bestalde, helduen artean euskararen erabilerak bost puntuko igoera izan duen bezala, nabarmentzekoa da, adinekoen artean 14 puntuko beherakada neurtu izana (2010eko %39,7tik 2016ko %25,4ra).

8. Euskararen erabilera eta haurren presentzia

8.1 Haurren presentziaren arabera euskararen erabilera

Nola aldatzen da hizkuntzen erabilera solas-taldea era batekoa edo bestekoa izan? Zehazki, haurrak eta nagusiak (gazte, heldu zein adindu) elkarrekin nahasian aritu edo ez, horrek ba al du eraginik hizkuntza baten edo bestearen aldeko hautuan?

20. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. LEZO, 2016 (EUSKARAZ, %)




	Haurren artean	Nagusien artean	Haurrak eta nagusiak nahasian
Euskaraz	22,3	27,2	52,1
Gaztelaniaz	77,7	72,4	47,0
Beste hizkuntzetan	0,0	0,4	0,8
GUZTIRA	100	100	100
Oinarria (behatutako solaskideak)	310	1740	1308

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Lezoko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016.

Datuak ikuspegi horretatik aztertuta ikus daiteke joera nagusia zein den: hizkuntza-portaerak aldatu egiten dira solas-taldearen osaeraren arabera. 20. grafikoan ikusi bezala, azpimarratekoa da hurrez soilik osatutako taldeetan (%22,3) gutxiago entzuten dela euskaraz hitz egiten nagusiez soilik (%27,2), edo haur eta nagusien artean osatutako taldeetan baino (%52,1). Beraz, nabarmenki eragiten du euskaraz edo gaztelaniaz hitz egiteko, haurren eta helduen arteko taldeak osatzea.

Ikus dezagun ordea haur eta helduen arteko taldeetan zer gertatzen den, ea batzuen eta besteen artean hizkuntza-portaeretan alderik dagoen. Hau da, talde horietan, berdin jokatzeko al dute hurrek ala helduek hitz egiten dutenean? Ondorengo 21. grafiko eta taulatan ikus daitekeenez, alde nabarmena dago batzuen eta besteen arteko hizkuntza-jokabideetan.

21.GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. HIZKETAN ARI DENAREN ARABERA. LEZO, 2016 (EUSKARAZ, %)




	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe)	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe)	Haurrak eta nagusiak nahasian	Nagusia hitz egiten	Haurra hitz egiten
Euskaraz	22,3	27,2	52,1	37,5	57,3
Gaztelaniaz	77,7	72,4	47,0	60,1	42,4
Beste hizkuntzetan	0,0	0,4	0,8	2,3	0,3
GUZTIRA	22,3	27,2	52,1	37,5	57,3
Oinarria (behatutako solaskideak)	310	1740	1308	341	967

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Lezoko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2016

Esan bezala, nagusiek (gazteek, helduek eta adinekoek) hurrekin taldeetan daudenean gehiago hitz egiten dute euskaraz (%37,5) eurak bakarrik daudenean baino (%27,2). Haurren artean joera hori, are nabarmenagoa da, benetan deigarria: Lezon hurrek eurak bakarrik daudenean baino askoz maizago egiten dute euskaraz nagusiekin osatutako taldeetan (%57,3) euren artean soilik daudenean baino (%22,3). Laburtuz, beraz, esan daiteke, adin-taldeak nahasten direnean euskararen erabilerak gora egiten duela eta kasu horietan haurraren, are eta nabarmenagoa dela euskararen erabileran duen eragina.


8.2 Erabilera eta haurren presentzia: bilakaera

20. GRAFIKOA eta TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. LEZO, 2011-2016 (EUSKARAZ, %)



	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe)	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe)	Haurrak eta nagusiak nahasian
2000	35,1	22,1	51,1
2002	60,3	24,5	56,6
2008	23,6	21,2	57,2
2012	52,2	32,5	57,0
2016	22,3	27,2	52,1

Iturriak: Soziolinguistika Klusterra, Lezoko Hizkuntza-erabileraren kale-neurketak 2011, eta 2016.



Hamasei urteko epealdiari (2000-2016) erreparatzen badiogu nabarmentzeko datua da haurren arteko euskararen erabilerak izandako hamahiru puntuko beherakada (2000ko %35,1etik 2016ko %22,3ra), baina tarte horretan eginiko neurraldietako emaitzetan gorabehera oso handiak jaso dira, eta beraz, arreta bereziarekin aztertu beharrekoak direla esan daiteke. Arestian esan izan dugu (metodologia atalean), lagina zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta emaitzaren akats-tartea handiagoa izateko arriskua dagoela. Kasu honetan fenomeno horren aurrean egon gaitzkeela planteatu daiteke hipotesi modura, eta pentsa daiteke tarteko balioen ordean, joera nagusiari begiratu beharko litzaiokeela, hamasei urte horietako beheranzko joera kontuan hartu beharrekoa dela, alegia.

Besterik da helduen euskararen erabilerak izan duen bilakaera. Epealdi horren bi muturreko datuak kontuan hartuz gero, esan daiteke bost puntuko igoera izan duela Lezon helduek osatutako taldeetan entzuten den euskarazko elkarrizketen proportzioak, 2000 urteko %22,1etik 2016ko %27,2ra igaro baita.

Amaitzeko, haurren eta nagusien arteko taldeetan euskararen erabilera egonkor samarra dela esan daiteke abiapuntuko datutik (2000ko %51etik 2016ko %52,1era igaro baita)



9. Datu nagusien laburpena

Atal honetan, Lezoko hizkuntzen kale-erabileraren neurketan jasotako **emaitza nagusiak** laburbilduko ditugu.

1. Klean entzundako **hamar elkarrizketetatik hiru eta lau artean euskaraz** izan dira, %36,5 zehatz esanda, eta gainerakoak gaztelaniaz (%63) zein beste hizkuntza batzuetan izan dira (%0,5).
2. 2000-2016 epealdian euskararen erabilera-datua **hiru puntu igo** da (2000ko %33tik 2016ko %36,5era).
3. Udalerriko **erdigunean** neurtu da euskarazko elkarrizketa-ehuneko handiena (%45,2), ondoren Zubitxo ibilbidean (%34,0), Udaburuko ibilbidean (%28,2) eta Lazon/Pildainen(%27,6).
4. 2000tik 2016ra euskararen erabilera **igo da 12 puntu Lezoko erdigunean**, eta **18 puntu jaitsi Udaburun**.
5. **Emakumezkoen** erabilera (%38,2) **gizonezkoena baino zertxobait handiagoa da** (%34,8). **Tarte hori txikiagoa da orain** duela 16 urte baino.
6. **Haurren** erabilera da altuena udalerrian (**%43,5**); gazteen erabilera %41,6koa da, helduena %35,9koa eta adinekoena %25,4koa;
7. Bilakaerari begiratu gero, nabarmentzekoa da haurren artean beheranzko joera azken lau urteetan.
8. **Haurrak bakarrik** (nagusirik gabe) daudenean **%22,3** da **euskarazko** erabilera. **Nagusiek, euren artean** (haurrik gabe) ari direnean, **%27,2tan** darabilte euskara. **Hurrek eta helduek** osatutako taldeetan, berriz, **%52,1era** igotzen da erabilera.
9. Nabarmentzeko datua izan daiteke haur eta nagusiez osatutako taldeetan **haurrak** direnean hitz egiten dutenak **%57,3tan** egiten dute euskaraz, **eurak bakarrik daudenean baino askoz maizago (%22,3)**.

Andoainen, 2016ko otsaila.